**2827**

AGINDUA, 2006ko maiatzaren 8koa, Osasun sailburuarena, Minbiziari buruzko Euskadiko Aholku Kontseilua sortzeko dena.

Maiatzaren 24ko 121/2005 Dekretuz Osasun Saileko Aholku Kontseiluen araubidea ezarri zen, zeinen helburua adituen aholkularitza lortzea baita; zertarako eta, irtenbide aukerak eta osasun arazoei aurre egiteko irtenbiderik egokienak aukeratzerakoan, inplikatutako sektoreen interesak ponderatzeko.

Sanitatean jarduteko premiarik gehien duen alorretariko bat, 121/2003 Dekretuan ere hala aitortu dena, minbiziarena da, 2002-2010 Euskadiko Osasun-Planean jasotakoaren arabera.

Egoera sozial eta ekonomiko antzekoa duten beste gizarte batzuetan jazotzen deneantxe, gurean ere gaixotasun onkologikoak osasun arazo larriak dira, heriotza asko dakartelako, morbilitate eta diskapazitate tasa altuak eragiten dituztelako eta ikuspegi sozial eta sanitariotik kostua handia dutelako.

Ezagutzak etenik gabe dirau garatzen eta, arlo horretan teknologiak duen bilakaeraren indarrez, aukera terapeutikoen eskaintza geroz zabalagoa da. Ondorioz, beharrezkoa da adituek ebaluazioa egin dezaten organo aholku-emaile baten barruan; beharrezkoa den moduan laguntza eman dezaten, eraginkortasun gehien duten irtenbideak bilatu eta ezartze aldera.

Horiek horrela, hau

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* 1.– 121/2005 Dekretuan xedatutakoaren haritik, Minbiziari buruzko Aholku Kontseilua sortzen da, zeinaren helburua gaixotasun onkologikoen arloan aholku teknikoa ematea izango baita.

2.– Minbiziari buruzko Aholku Kontseilua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Osasun Sailari dago atxikita, baina ez du Sailaren egitura hierarkikoan parterik hartzen.

*2. artikulua.–* 1.– Aholku Kontseiluaren eginkizunik behinenak: osasunaren helburuak lortzeko neurriak proposatzea eta 2002-2010 Osasun Planean gaixotasun onkologikoetarako jasotako estrategiak garatzea.

2.– Horietaz gain, honako hauek ere bai:

a) Argibideak eta aholkuak ematea gaixotasun onkologikoen arlo hauetan: lehen mailako prebentzioa, diagnostiko goiztiarra, tratamendua eta zainketa aringarriak.

b) Laguntza modu ezberdinak antolatzeko aspektuen gaineko argibideak eta aholkuak ematea, zertarako eta, asistentziarekin (lehen mailako atentzioa eta espeziali-

**2827**

ORDEN de 8 de mayo de 2006, del Consejero de Sanidad, por la que se crea el Consejo Asesor sobre el Cáncer en Euskadi.

Mediante Decreto 121/2005, de 24 de mayo se establece el régimen de los Consejos Asesores del Departamento de Sanidad con la finalidad de obtener un asesoramiento experto que pondere las diferentes alternativas de solución y los intereses de los distintos sectores implicados en la adopción de las soluciones más adecuadas para afrontar una problemática de salud.

Una de las áreas de actuación sanitaria prioritaria reconocida por el Decreto 121/2005 es el cáncer, en consonancia con lo previsto en el Plan de Salud de Euskadi 2002-2010.

Como en otras sociedades de similar contexto social y económico, las enfermedades oncológicas constituyen hoy en día en el País Vasco un problema de salud importante por sus tasas de mortalidad, morbilidad, discapacidad, y por el coste socio-sanitario que suponen.

El permanente desarrollo del conocimiento y la evolución de la tecnología en esta área, con una constante oferta de alternativas terapéuticas, exige una evaluación experta en el seno de un órgano de asesoramiento que colabore en la búsqueda e implantación de las soluciones de mayor eficiencia social.

Por todo ello,

DISPONGO:

***Artículo 1.***– 1.– Se crea el Consejo Asesor del Cáncer como órgano consultivo para el asesoramiento técnico en materia de las enfermedades oncológicas, en el marco de lo dispuesto en el Decreto 121/2005.

2.– El Consejo Asesor del Cáncer queda adscrito al Departamento de Sanidad de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, sin participar en la estructura jerárquica de ésta.

***Artículo 2.***.– 1.– Será función principal de este Consejo Asesor proponer medidas para la consecución de los objetivos de salud y el desarrollo de las estrategias contempladas para el área de las enfermedades oncológicas en el Plan de Salud 2002-2010.

2.– Serán, asimismo, funciones del Consejo Asesor:

a) Informar y asesorar sobre prevención primaria, diagnostico precoz, tratamiento y cuidados paliativos de las enfermedades oncológicas.

b) Informar y asesorar sobre aspectos organizativos de los diferentes niveles asistenciales para una mejor continuidad asistencial (atención primaria y especiali-

zatua) ahalik egokien jarraitzeko eta baliabideak taxuz erabiltzeko.

c) Argibideak eta aholkuak ematea honako arlo hauetan: informazio sistemak, prestakuntza, ikerketa lerroak eta zerbitzuen ebaluazioa.

d) Laguntza prozesuen kalitatea monitorizatzeko behar diren adierazleak zehazten argibideak eta aholkuak ematea, aukera emanaz berariazko prozesuak programa kontratuetara hedatzeko eta emaitza klinikoek osasunean duten eragina neurtzeko.

e) Interbentzio sanitarioko programak proposatzea eta, hala behar izanez gero, gertatzen Osasun Sailarekin batera lan egitea, honako hauek zehaztuz: eginkizun orokor horien helburu operatiboak, zerbitzuetako premiak, baliabideak eta 2002-2010 Osasun Planean aurreikusitako helburu orokor eta estrategien esparruan antolatzea.

f) Osasun Sailak osasun programei eta prozesu asistentzialei buruz egiten dituen ebaluazioen emaitzen gaineko argibideak eta aholkuak ematea, egoki ikusten diren eguneratze eta hobekuntza proposamenak formulatuz.

g) Dagoeneko hasita edo hastear dauden egintzak aztertzea, aintzat hartuz osasun premien bilakaera eta interbentzio sanitarioen eraginkortasuna, Osasun Saileko zuzendaritza organoek onar dezaten.

h) Egite-bidean egon edo eginkizun dauden ikerketa lerroei buruzko argibideak eta aholkuak ematea, eta jarduera-arlo horretan diharduten puntako teknologien berri ematea.

*3. artikulua.–* Minbiziari buruzko Euskadiko Aholku Kontseilua lehendakariak, idazkariak eta 16 mahaikidek osatuko dute, denak ere Osasun sailburuak izendatuta.

*4. artikulua.–* Mahaikideak modu honetan aukeratuko dira:

a) Mahaikide bat, Zientzia Medikoen Akademiaren ordezkaria.

b) Mahaikide bat, gaixotasunak eragindako elkarteen ordezkaria.

c) Mahaikide bat, Ginekologiako eta Obstetriziako EAEko Erakundearen ordezkaria.

d) Mahaikide bat, Neumologiako EAEko Erakundearen ordezkaria.

e) Mahaikide bat, Patologia Digestiboko EAEko eta Nafarroako Erakundearen ordezkaria.

e) Mahaikide bat, Familia- eta Komunitate-Medikuntzako EAEko eta Nafarroako Erakundearen ordezkaria.

d) Mahaikide bat, Zainketa Aringarrien EAEko Erakundearen ordezkaria.

zada) y para el aprovechamiento racional de los recursos.

c) Informar y asesorar sobre sistemas de información, formación, líneas de investigación y evaluación de servicios.

d) Informar y asesorar en la definición de los indicadores necesarios para monitorizar la calidad de los procesos asistenciales, facilitando la definición y extensión de los procesos singulares en los contratos programa y la medición de los resultados clínicos en términos de salud.

e) Proponer y, en su caso, colaborar con el Departamento de Sanidad en la elaboración de programas de intervención sanitaria, definiendo objetivos operativos, necesidades de servicios, recursos y su organización en el marco de los objetivos generales y estrategias previstas en el plan de Salud 2002-2010.

f) Informar y asesorar acerca de los resultados de las evaluaciones que el Departamento de Sanidad realice sobre los programas sanitarios y sobre los procesos asistenciales, formulando las propuestas de actualización y mejora que se estimen pertinentes.

g) Analizar las acciones ya emprendidas o a emprender, según la evolución de las necesidades de salud y de la efectividad de las intervenciones sanitarias, todo ello para su posterior aprobación por los órganos directivos del Departamento de Sanidad.

h) Informar y asesorar sobre líneas de investigación en curso o que se prevean en un futuro, así como informar de la existencia de tecnologías emergentes en este campo de actividad.

*Artículo 3.–* El Consejo Asesor del Cáncer en Euskadi estará compuesto por un Presidente, un Secretario y 16 Vocales, designados por el Consejero de Sanidad.

*Artículo 4.–* La designación de los Vocales se realizará teniendo en cuenta la siguiente distribución:

a) 1 vocal en representación de la Academia de Ciencias Médicas.

b) 1 vocal en representación de las Asociaciones de afectados por la enfermedad.

c) 1 vocal en representación de la Sociedad Vasca de Ginecología y Obstetricia.

d) 1 vocal en representación de la Sociedad Vasca de Neumología.

e) 1 vocal en representación de la Sociedad Vasco-Navarra de Patología Digestiva.

f) 1 vocal en representación de la Sociedad Vasco-Navarra de Medicina Familiar y Comunitaria.

g) 1 vocal en representación de la Sociedad Vasca de Cuidados Paliativos.

h) Mahaikide bat, Institutu Onkologikoaren ordezkaria.

i) Hiru mahaikide, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren ordezkariak.

j) Hiru mahaikide, Osasun Sailaren ordezkariak.

k) Mahaikide bi, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzaren ordezkariak.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko maiatzaren 8a.

Osasun sailburua,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.

h) 1 vocal en representación del Instituto Oncológico.

i) 3 vocales en representación de los servicios sanitarios de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

j) 3 vocales en representación del Departamento de Sanidad.

k) 2 vocales por la Dirección de Asistencia Sanitaria de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 8 de mayo de 2006.

El Consejero de Sanidad,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.

# Agintariak eta Langileria

## Oposaketak eta Lehiaketak

### ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

### 2828

AGINDUA, 2006ko maiatzaren 15ekoa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailean hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdi publikoa egiten duena.

Sail honetan goi-kargudunaren idazkari lanpostu bat hutsik dagoenez, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.2.c artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz (1989ko uztailaren 28ko EHAA), eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak aldeko irizpena eman ondoren, agindu honen eranskinean zehazten den lanpostua izendapen askez betetzeko deialdia iragartzea erabaki du sail honek. Hona hemen deialdiaren

OINARRIAK:

***Lehenengoa.***– Lanpostuan aritzeko, eranskinean adierazten diren eskakizunak betetzen dituzten karrerako funtzionarioek eska dezakete agindu honen bidez iragartzen den lanpostua.

# Autoridades y Personal

## Oposiciones y Concursos

### DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

### 2828

ORDEN de 15 de mayo de 2006, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, por la que se anuncia convocatoria pública para la provisión, por el sistema de libre designación, de un puesto de trabajo vacante en el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

Estando vacante un puesto de «Secretario/a de Alto Cargo» de este Departamento y conforme a lo dispuesto en el Artículo 46.2.c de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca (BOPV del 28 de julio de 1989) y previo informe favorable de la Dirección de Función Pública, este Departamento acuerda anunciar la provisión, por el procedimiento de libre designación, del puesto de trabajo que se relaciona en el anexo de la presente orden, con arreglo a las siguientes

BASES:

***Primera.***– El puesto de trabajo que se convoca a través de la presente orden podrá ser solicitado por los funcionarios de carrera que reúnan los requisitos exigidos para el desempeño del mismo, establecidos en el anexo de la presente orden.